SENTITU, PENTSATU, EKIN!

Auditorio **Kursaal** Auditorioa

**Ekainak 20 Junio** / 16:30 - 19:00

**8 €**

En colaboración con la

Orquesta Sinfónica de Euskadi

**SARREREN SALMENTA**

VENTA DE ENTRADAS

**www.kutxasarrerak.net**

**Taquilla Kursaal**

Los días de concierto de Kursaal Eszena y la OSE (17:00 - 20:00)

**Taquilla Victoria Eugenia**

Todos los días (11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00)

**ORDU GAZTEA <30 <30MIN 3€**

**Babesleak** / Patrocinadores:

euskaltel EL DIARIO VASCO

**Laguntzaileak** / Colaboradores:

kutxa gizarte ekintza herza ivc Giroa ESTRATEGIA Gipuzkoa

# Hasier Larretxeak "Baztango kronika emozionala" idatzi du

Idazle nafarrak 'Larremotzetik' izeneko kontakizun fragmentarioa plazaratu berri du

**DONOSTIA** – Memoria, poesia, autobiografia eta fikzioa txirikordatuz, Hasier Larretxea (Arraioz, 1982) idazleak bere haurtzaro eta nerabezaroan kokatutako kontakizun fragmentarioa plazaratu du, bere ikuspegi oso bat erakusten duena. *Larremotzetik* (Erein) testu laburrez osatutako prosa da, istorio partikular eta familiarra, idazleak "Baztango kronika emozionala" bezala definitzen duena.

Bere hirugarren lana da, *Azken bala* (2008) eta *Atakak* (2011) liburuen ostean, baina aurreko biek poesia zuten oinarri. "Narraziogintzan murgiltzen naizen lehenengo aldia da eta osorik biluztu naiz", adierazi zuen idazle nafarrak. Gainera, bere iritziz, proposamen ausarta izan da liburu hau idaztea eta "esaten direnek eta ez direnek garrantzi bera dute". Bere helburua "Historia liburuetan agertzen ez diren horien ahotsa biltzea" zen, eta aiton-amonen memoria izatea, bere jaioterrian kokatuta.




**Larretxea, atzo.** *Argazkia: Ruben Plaza*

"*Larremotzetik* gogoetarako heldulekua izatea nahiko nuke, irakurleak hobetze prozesuan sinetsi dezan", adierazi zuen egile nafarrak. – *N.G.*